



#### LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2023-01-09

BILERA ZENBAKIA: 1

ORDUA ETA LEKUA: 17:30tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Jabi, Leire, Maider, Bihotza eta Erkuden

#### EGINDAKO LANAREN LABURPENA

#### LANDUTAKO GAI ORDENA

##### **ETXEKO LANEN ERREPASOA**

Hirigintza taldera mataderoko konponketak egiteko eskatu lehen bait lehen (BIHOTZA): Arkitektoa aldatu danez beste aurrekontu bat eskatuko du oraingo arkitektoak "beharrezko" konponketak egiteko (paretak, leihoak, teilatua...) eta ez bada aurrekontua asko igotzen Aurrera egiteko eskatuko diegu hirigintza taldekoei.

Aiorari 2022an egitekoak geratu ziren lanen zerrenda pasatzeko eskatu (MAIDER): berriz galdetuko zaio.

Ongizate taldera sartu daitezkeen izenen zerrenda osatu (DENOK)

- Esti
- Laura
- Mirari
- Memoria tailerreko bolondresak
- Ainara (Maddin kuadrilakoa)
- Mikel
- Ana Sesma
- Adgi
- Maialen

##### **JUBILATUEKIN BILERA (urtarrilak 4)**

10 pertsonen eman dute izena iada (8 emakume + 2 gizonezko).

5€ko kuota proposatu da eta ados agertu die.

Jubilatu batzordekoek beraien artean hitzegin ostean, jubilatu elkarteko bazkide direnei kuota ordaintzea adostu dute. Jubilatu elkarteko bazkide ez direnei, bazkide egiteko gonbitea luzatuko zaie eta ez badu nahi, kuota normal kobratuko zaie. Itsasondokoak ez diren beste jubilatuek kuota ordaindu ebharko dute.



## URTARRILAK 27rako BATZARRERAKO GAIAK

3 zutabe hartuko ditugu aitzaki:

### BIZI KALITATEA BERMATZEN DUEN HERRIA

- Etxebizitzak
- Herriko zerbitzuen eskaintza osatzea (emagina, psikologoa, fisioterapia, podologoa, denda...)
- Herri osasuntsua (kirol eskaintzak adin guztientzako...)
- Herri orekatua ekonomikoki eta adin aldetik
- Mugikortasuna (garraioa) -> bizikleta elektriko alokairua...

### HERRI ANITZA

- Errefuxiatuen inguruko sentsibilizazioa eta ekintza solidarioak
- Integrazioa: Orokorrean komunitateen egonkortzea, saretzea oinarri hartu beharko genukeela hitzegin da. Horretarako "aitzaki" polita izan daiteke **HARRERA EGUNA**.
- Zaintza sarea
- Konpromezuak

### HERRI PAREKIDEA

- Berdintasuna arlo guztietan
- Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa
- Batzordeak bultzatu; entzunak, babestuak, maitatuak eta askean sentitzea

Galdera garrantzitsu eta batzarrean landu beharrekoa HERRITAR BERRIEN INTEGRAZIOA NOLA LANDU eztabaidatzea eta adostea dela iruditzen zaigu. Modu naturalean sortu beharko liratekeen elkarguneak bultzatu beharko genituzke, bai plazan edo eguneroko bitzitzako martxarako... **herritar berri hauen beharrak gertuagotik ezagutu eta nola lagundu jakiteko**. "Integrazioa talde" bat beharko litzatekela hitz egin da (izena aldatuta) baina ez dugu nahi pixua ongizatek izatea, paraleloki herri guztiaren "ardura" izan beharko litzatekela uste bait dugu. Hasierako bultzada bezela, Harrera Eguna aprobetsatu eta uztailean elkartzeko aitzaki bat bilatu nahi dugu, lasai hitz egin eta kezkek, galderak etabar partekatzeke guk bat sortzeko.

## ONGIZATERA ERAKARTZEKO JENDEAREKIN BILERAK

Farapikoekin urtarrilaren 19an dugun bilera ondoren, ongizatearen martxa antolatu eta hasiko gara biltzen jendearekin.

Helburua Ongizate lan-taldea sendotzea bada ere, jendeari bi aukera emango dizkiogu:

- Ongiarte bileran parte hartzea.
- Lanerako sarean parte hartzea.



## BESTELAKOAK

Bihotaren deskargua: Gaur egun 2 esku hartze prozesu daude herria, Aldundiaren esku daudenak. Baliteke 2023 urtean zehar udalak martxan jarri beharreko beste esku hartze bat egotea.

ETXEKO- LANAK / ARDURAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Udalak dituen etxebizitza sozialen egoera nola dagoen galdetu; epeak, baldintzak...	Otsailak 7	Bihotza
TO GO TO GO aplikazioaren berri eman herritarrei <a href="https://toogoodtogo.es/es">https://toogoodtogo.es/es</a>	Otsailak 7	Bihotza
Aiorari 2022an egitekoak geratu ziren lanen zerrenda pasatzeko eskatu	Otsailak 7	Maider

## HURRENGO BILERA

Urtarrileko bilera:

GAI ORDENA **ONGIZATE + FARAPI** (urtarrilak 19 - 18:30 udaletxean)

- 2023-2027 lanketaren antolaketa

GAI ORDENA **BATZARRA** (urtarrilak 27 - 18:30 kulturgunean)

- Herri Programa

GAI ORDENA **ONGIZATE LAN TALDEA** (otsailak 7 - 17:30 udaletxean)

- Etxeko lanen errepassoa
- Batzarreko emaitzak errepassatu
- Bolondres taldeko bilerak antolatu